

50.
zk.

1997KO
OTSAILA

GEU ELKARTEAREN BABESAREKIN

gasteiz

gasteizko euskaldunon aldizkaria

FRANKEO ITUNDUA 48 / 27



50
...ta segi
aurrera!

GEU, idazle OTIK SO.ERA... TA SEGI AURRERA

"Adiós París!..." esana izango du dagoeneko bateren batek- nork zehaztea ez zaigu oraingoz komeni-, "... hor ari dituk orain ere euskaltzale pelma horiek; aldizkariren bat-edo atera nahian omen zebiltzak oraingoan". Eta horrelaxe izan gainera (...). Gasteiztarrek gara (jaiotzez, lanbidez edota bokazioz, berdin dio!) eta euskaraz bizi nahi dugu. (GEU GASTEIZ. 0 alea, 1992).

Bai, ez ditun gogoan izango, baina horietan izan hituen hik jaio eta berehala entzun genizkinan lehendabizikoa negarrak, neskato. 1992. urteko abuztuaren 4a zunan eta egun horretanxe ikusi huen GASTEIZ aurreneko. Hi ez hintzen, bada, Parisetik etorri beste ume guztien antzera. Ezta Gamarrako zikoini esker ere. Hi Zeledonek ekarri hinduen, ke artean, San Migueleko dorretik Gasteizko Plazara bertara. Gurasoak? GEU, noski. Zazpi hileko haurdunaldi nekeza izan zunan hirea eta azkenekoan, uztaillean, kezkatzen ibili gintunan erditzea korapilatzen ari zitzaigulako...

... Eskerrak! Munduratu hintzen azkenean. Gasteizeratu ere, Bartzelonako Joku Olinpikoak puripurian zeuden garai hartan. Zazpiki jaio hintzenez, ordea, beste 5 bat hile izan hindugun inkubagailuan, 1992ko abendutik aurrera amaren titiari hilero-hilero eta goxo-goxo eragiten hasi baino lehen. Ordutik 50 hile pasa ditun, 4 urte; hazita hago gero! Dagoeneko, 1996ko Olinpiada ere joana dun Atlantatik, Pierre de Coubertain jaunari, lehenengo joku olinpiko modernoak sortu zituenetik, oraintsu 100 urte igaro zaizkion bezala. Pierrek bereari eutsi zionan, baina. GEUK ere bai. Zergatik ez: "Irabaztea baino, jokatzeta, parte hartzeta, euskalduna sentitzea dun gakoa". Irabaztea..., geroko.

losu Kintas

Modernotasunean Kokatzuz etorkizunaren bila

Lehen lehenik zoriondu nahi nuke Geu Gasteiz izeneko aldizkaria posiblea egiten duen gizon/emakume talde guztia. Zorionak 50. alea argitaratzen duzuelako. Hala ere, honelako uneak ospakizunarako ezezik hausnarketarako ere izan behar dute, Etorkizunaren gaineko hausnarketa egiteko hain zuzen ere.

Egia da, historikoki euskararen aldeko lehenengo aldizkariak herrietan agertu direla eta gehienak euskaldun zahar asko zeuden tokietan garatu direla lehenengoz. Errealitate honek erabat baldintzatu egin du aldizkariaren garapena. Irakurlego potentzialaren gehiengoa ez alfabetatua zelako gaien tratamendua egiteko orduan arintasunari eta irakur-erretzasunari eman zaito lehentasuna eta gaiak herriko errealtateak isladatzen saiatu egin dira. Modelu honi jarraituz arrakasta lortu duten aldizkariak anitz dira dagoeneko Euskal Herri osoan. Baina Gasteizko kasua ezberdina da eta herri aldizkariaren eredutik at dago neurri handi batean. Gasteiz ez da herri ala hiri txiki bat Euskadiko hiriburu nagusia baizik, eta Gasteizko errealtateari lotzen bagatzaizkio zera somatzen da: Gasteizko euskaldungo gaztea, urbanoa eta ikasketaduna dela. Beraz, kasu askotan euskaldungo hau alfabetatua da eta irakurtzeko erraztasun handiagoa duena. Ondorioz, honek nolabaiteko islada eduki beharko luke Gasteizko euskal prentsan. Beraz, egitekoa hiri aldizkari bat gauzatzea da, gai urbano eta modernoan tratamendu sakona eskainiz. Gasteiz izan bada hiri zahar-berri bat, haz-



Xedorta sanz

ten dagoena, ekimen handia duena eta Euskal Herriko bazter guztietako seme-alabak bere baitan hartu dituen. Hau kontuan izan behar dugu edozein aldizkari proiektu Gasteizen gauzatzeko.

Bada ordua "Araba zazpigarren alaba+patatero+nekazaria" dioen irudikeriarekin amaitzeko. Bada garaia euskal munduaren periferian bizitzeari uzteko eta euskaldun arabar bezala dagokigun tokia hartzeko. Gaur egungo Araba, Gasteiz burua duena, errealtate moderno dugu eta honela onartu dute urrutetik etorritako askok, hots, ekonomia mailan gure lurralde historikoa kokalekutat hartu dutenek edota nazioarteko jazz festibalera parte hartzera etortzen direnak. Hala eta guztiz ere, honelakoek ez dute erro-rik hartu "euskal prentsan".

Beraz, ahalegin berezia eginez badago zer burutzerik modernotasun honi tokia egiteko euskal prentsa mundua eta, batez ere, Gasteizko hiri prentsan. Modernotasuna eta euskara eskutik joatea garrantzitsua da dugun mundu multikultural honetan aurrera egiteko, baita gaztea, moderno eta ikasketaduna den irakurlego baten egarria asetuz euskaldun berri guztiei kalitatezko gaiak eta erreferentziak eskaintzeko ere.

Joseba Arregi, FORU ALDUNDIKO KOMUNIKABIDE ETA HARREMAN PUBLIKORAKO ZERBITZU BURUA

BERTSOLARIAK GASTEIZKO PLAZARA

otsailak 15 iluntzeko 8etan

PRINCIPAL ANTZOKIAN

5 sarrera dohainik izango dituzte kupoak hau 'Herrikoia' liburudendan aurkeztuko duten lehenengo 5 pertsonak (sarrera bana)

1997ko otsaila

2

geu idazle:

Otik 50.era, josu kintas
kolaborazioa, Joseba Arregi

3

bertsoak, igor elortza

4

k. mintzo: 50, quinquaginta...

5

zurrumurrak / hitz eta pitz

6

diseinu berria, aurrerapausu
atsegina

8

Harpidetza kanpaina: "behar
beharrezkoa dugu aldizkari-
arekin aurrera segitzeko"

13

Geu Gasteiz, Geu Elkartea:
3 urte ta pikuko istorio
ederra

17

Gasteizko dendariak, hasera-
haseratik aldizkariaren
sostengu

19

hamaika arrakasta eta porrot
arabar kirdariengan




igor
elortza

Gasteiz
Geu

NEURRIA:

ZORTZIKO NAGUSIA

DOINUA: AITA JAINKOAK



X edorta sanz

Aldizkariak baditu honekin
berrogei eta hamar ale
Notizi honek postuko ditu
Gasteizko hainbat euskaltzale
Izan dadila berri pozgarri
gehiagoren eramale
Ta hala izango da irakurleak
egiten ez badu kale.

Kapitaletik kapitalera
berri eramale zuzen
euskara hutsezko aldizkari bat
gure beharrak betetzen
kontuan izan zein garai joan
diren ta zeintzuk datozen
Geu Gasteiz izan beharko gara
Gasteiz geu izan gaitzen.

22

GEU GASTEIZ:

IRAGANA VERSUS ETORKIZUNA

Maxio Lpz. de Arana:

"zorianak denoi"

Xabier Zabaleta: "Zertarako
Geu Gasteiz"

24

Arantzabelako haurrak, egun
bateko kritika

26

Wild Life, Migo Sarasolaren
azkenaurreko ausarkeria

ZUZENDARIA:

JOSU KINTAS

ERREDAKZIOBURUA:

XABIER ZABALETA

ERREDAKZIO-BATZORDEA:

LEIRE LOPEZ DE ABERASTURI, ISMAEL DIAZ
DE MENDIBIL, MIEL ANJEL ELUSTONDO,
DAVID ALVEZ, EDU LOPEZ DE LUZURIAKA,
TXABI ARNAL GIL

MAKETAZIOA:

ALEX BADILLO, ASIER PZ. DE KARKAMO
KOMIKIAK ETA MARRAZKIAK:

MIGO SARASOLA, AITZIBER IRIONDO

PUBLIZITATEA:

KARLOS FDEZ. DE BETOÑO

ARGAZKILARIAK:

EDORTA SANZ, JOSEBA UNZALU

KOLABORATZAILEAK:

TXIFI ORMAETXEA, WAKI GAUNA, MIKEL
GARMENDIA

INPRIMATEGIA:

GERTU KOOP. E. (ZUBILLAGA, ORATI)

gasteizko
euskaldunon
aldizkaria

GEU
GASTEIZ EUSKALDUNA

6.000 Aleko Tirada
Lege-Gordailua VI-582/92
ISSN: 1133-0988

Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfn0. eta faxa 22 21 53

gasteizko euskaldunon aldizkaria

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

berriak
akotatu

Kalea berrogeitamar,

QUINQUAGINTA, FÜNFZIG, CINQUANTE...



GOGOA amets egin zen eta ametsa errealitate bihurtu. Eskuetan duzun aldizkari hau, errealitate horren 50. alea duzu. Aldizkariaren 0 zenbakia 1992ko uztailean plazaratua izan zen eta, berarekin batera, Gasteizko euskalzaleon aspaldiko desioak gorpuzten eta gauzatzen hasi ziren. Zalantzarik gabe, euskararen inguruan Gasteizen eman den pausu garrantzitsuenetarikoa izan da. Aurrera!!!



Endrike Knörr
IRAKASLEA



Xabier Santxotena
SUKALDARIA,

1.º BA AL DUZU GEU GASTEIZ ALDIZKARIAREN BERRI? JASOTZEN EDOTA IRAKURTZEN AL DUZU?

2.º ZEIN DA ZURE ERITZIA ALDIZKARIARI BURUZ? ZER IKUSTEN DUZU FALTAN ETA ZER SOBERAN?

1.º Bai, etxean hartzen dut eta baita irakurri ere. Ez bapatean, egia esan, tarteka baizik, denboraren arabera.

1.º Bai, ezaguna dut, eta gogoko dut aldizkaria irakurtzea. Gauza ederra benetan!!

2.º Kanpoko itxurak, batetik, eta barruko antolamenduak, bestetik, ez naute gogobetetzen. Merkatuan diren hainbat aldizkariaren pare da horretan, eta bereizi beharko litzateke..

2.º Ezin ezer txarrik esan aldizkariari buruz, eta zerbait azpimarratzekotan kultura arloa lantzen duten artikuluaak aipatuko nituzke.



Patxi Zubizarreta
IDAZLEA



Aitor Arregi
FUTBOLARIA



Izaskun Bengoa
TXIRRIKIDULARIA



Hector Llanos
TRIATLETA

1.º Bai, Geu Elkarteko bazkidea naiz eta hasieratik bileretan parte hartu nuen.

2.º Hori da galdera hori! Kendu, ez nuke ezer kenduko, positibo ikusten dut eta, bestalde, nire saila denez, literatura gehiago sartuko nuke.

1.º Bai, jakina. Hilabetero jasotzen dut eta inoiz lagundu izan dut, bai aldizkarian eta baita Geu Elkartean ere.

2.º Nahiz eta berria izan ondo dago. Dena den, denborarekin hobetuz joango dela espero dut.

1.º Ez, egia esan, ez dut jasotzen eta ez dut irakurtzen. Iaz elkarrizketa bat egin zidaten eta ordutik ezagutzen dut.

2.º Ez dudanez irakurtzen ezin dut ezer esan, baina gustora jasoko nuke aldizkaria, ideia polita iruditzen zaidalako..

1.º Nahiz eta etxean jasotzen ez dudan, ezagutzen dut. Normalean tabernetan irakurtzen dut.

2.º Soberan ez dagoela ezer uste dut eta orri gehiagokoa egingo nuke aldizkaria. Dena den, orri gehiago izateagatik soilik ez litzateke hobe izango..

✉ Juan Jose Kastresana 'Gutxi' ✕ edorta sanz

OLARIZU MENDI

HERRIKO TABERNA

JOSE URUÑUELA
KALEAN

GASTEIZKO

IRUBIDE

RAMIRO DE MAEZTU
KALEAN

HERRIKO TABERNA

HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA

"SAN FRANCISCO JAVIER" KANTOIAN



Berrogeita hamar ale

GEUkoen ametsak eta aldizkaria



Bada zerbait! Hilero-hilero hutsik egin gabe heldu da gure eskuetara "Geu Gasteiz" aldizkari txukun eta euskalduna. Hilero-hilero milaka etxe bisitatzen ditu Gasteizen, Araban eta herrialde honetatik kanpo. Badute meriturik lan honek dakartzan buruhausteak gaindituz etengabeko bide serioan diharduten lagun finek. Holako jendea ezagutzea aukera dugun euskaltzaleok harro behar genuke.

Gogoan daukat lehen alea eskuratu nuen egun hura! Nire lagun eta talde horretako partaide den Joseba "Goros"ek eskaini zidan. Halako zirrara atsegin batek astindu zidan gorputz guztia: lehen aldizkaria euskaraz eta Gasteizen! Hau duk erronka motel!, nioen nirekiko.

Badakigu, eta hemengook ondo baino hobeto, holako ekintzek dakarten izerdi isurketa nolakoa den. Hasiera, indar berrien eraginez, izaten da behar bada errazana; baina jarraipena, eguneroko eginbeharra, ekintzen gordina eta latza suertatzen da gehienetan.

Dena den irakurle, esku artean duzun 50. ale hau, ale

berezi hau, talde borondatetsu horren etengabeko ekimenari esker iristen zaizu. Zorionak bene-benetan!

Beraz, behin 50. alera iristeak, oinez ikasi duela esan nahi du. Eta oinez hasterakoan, zapatatxoak erosi beharrean izaten gara, baita jantzi txoren bat edo beste ere. Eta bizi garen gizarte honetan dena ordaindu beharra dago. Hala, gaurdaino ale guztiak dohainik izan baditugu ere, aurrerantzekoak poltsikoan koska egitera etorriko zaizkigu. Baina, lasai euskaltzale, ez da hainbesterako izango! Egunean basoerditxo bat gutxiago edatea nahikoa izango duzu. Horrela, gorputzak eskertu eta aldizkariari on.

Bejondizula "Geu Gasteiz" zure 50. kaleratze egunean eta ea 100.ean ere orriska euskaldun hauexetan elkartzen garen. "Zurumurruak" prest dago hala gerta dadin.

Alberto Ansolaren soroan ari naiz estrainekez. Diputazio-buru izana nekatu zaigu, errotari eragin eta eragin. Aldizkaria berritzeko erabakia harturik dugun garaian, seguru. Osintxukoa ez da pott egin duen bakarra. Gehiagok ere jo du hondoa.

Esate batera, GEU elkartearen zuzendaritza batzordea ere ajeak jota ari omen zaigu joan den aspaldian: arrastaka eta penatuta ari omen da, batzorkideak bileretara garraiatu ezinean. Urteroko batzar nagusirik ere ez da izan 96an. Arduradunak leporaino egin dute lanez. A zer panorama, aldizkaria berritzeko erabakia harturik dugun garaian, seguru. Bere kasa ari da Geu Gasteiz aldizkaria. Ordea, zer dugu Geu Gasteiz aldizkaria GEU elkarte gabe? Zertarako? Perasovic-en hiruko saskiratzeen berri euskaraz izateko, beharbada? Euskaldunon Egunkariako L. P. Garciak "Txarli" ezizenez,

ondo asko betetzen digu lan hori. Gainera, partiduak jokatu eta hilabetera ez baina bi egunera-edo. Atlantako olinpiadetan urrezko domina zuten kirolarien elkar hizketak irakurtzeko? Horra non dugun Euskaldunon Egunkaria izeneko paper sorta.

Hortaz, zertarako Geu Gasteiz berria? Ene iritziz, GEU elkartearen asmoak -kasik idatzi nuen "ametsak"-betetzen laguntzeko. Gasteizko euskaldunek eguneroko bizimodua euskaraz ere egin ahal izateko. Ez Gasteiz hiri motelean egosten (?) ari den zeinahi berriren aipu egiteko. Gainerako hedabideetan luze eta zabal irakurri ohi dugun informazioa atzera irakurtzeko tirriarik ez ohi dut nik. Aldiz, Gasteizen -zergatik ez Araban-, euskaraz ere bizi ahal izateko aukerak sortu eta handitzeko. Gure ikastetxeetan euskaraz ikasten ari diren ikasleei, batik bat. (Lantziegoko egoera ekarriko dut hurrena hizpide). Horretarako dut nik Geu Gasteiz. GEU elkartearen berripapera. Osterantzean, laster naiz ni neu ere Osintxukoaren bidean, pott egin eta gehiago ezinean. Hasi orduko!

KIROLDEGIA
CENTRO DEPORTIVO

C/COMANDANTE IZARDUY, 18 TFNO: 945/23 05 36
01006 VITORIA-GASTEIZ

Muskulazio-gela eta gela kardeobaskularra (500 m²) • 4 squash-pista arauzko • Rokodromoa (20m x 11 m) • Saski baloi indoor pista • 800 m²-ko aldagelak (norbere takilak, 40 dutxa, 2 ur-eremuetan: hidromasaia, lurrun-bainua, sauna erraldoia • Aerobik-gela (300 m²) • Mantenimendu-gimnasiarako gela • Tatami gela (250 m²) • Bilar frantsesean eta amerikarrean iharduteko mahaia • Ping-pong mahaia

ETA LASTER: Padel pista • 25 metroko igerileku estali-girotua • Baloi anitzeko zelaia: saski baloia, futbitoia,...

aketa



TEKNOLOGIA BERRIEK
MUNDUA SEGUNDURO
ERALDATZEA EKARRI
DUTE. GUK EZ DUGU
ATZEAN GERATU NAHI
IZAN ETA KALITATEZ-
KO ALDIZKARI MODERNO
BAT EGITEN SAIATU GARA.

Euskaraz, Europan,
hizkuntzarik zaharrena izanda
ere, Gasteizen, zentzu askotan
gaztetxoa da oraindik.
Gasteizen euskaraz dakigunak
euskaldun berriak gara eta,
horrexegatik ere, euskaldun
berritzat jo dezakegu Gasteiz
bera. Hemengo euskaldunok
euskal kantu zaharrak
ezagutzen ditugu, nola ez, baina
Super-Nintendokoen belarinaldi
berekok izanda, beste gauza
asko jasotzen ohituta dardagu
burua. Gasteizko euskalduna,
gaztea, ikasia, modernoa eta
martxosoa omen da; eta
ezaugarri horiek dituen
aldizkaria prestatu dugu:
modernoa, gazteagoa,
interesgarriagoa, eta askoz ere
martxosagoa.

darturik eta kanpotik

aldaketa

ALDIZKARIAKI bultzada bat eman
behar zaitzaiola erabaki zenean, aurpegia
aldatzean ere pentsatu genuen. Horretarako
Asier eta Alexengana jo genuen. Asier Pz.
de Karkamok hiru urte pasatxo egin ditu
gure artean eta Alex Badillok jada lau
baino gehiago. Eta azken hilabeteotan su
eta gar aritu dira, teklatua eta arratoia
eskuartean, *Geu Gasteiz*-i kirurjia plastikoa
egiten.

GEU GASTEIZ: Zelan azalduko zenioke
irakurle arrunt bati, nolako den
maketatzailearen lana?

ASIER PZ. DE KARKAMO: Ez da erraza
azaltzen! Bi hitzetan esanda, informatika
ekipo arrunt, baina kalitatezkoarekin egiten

dugu lan. Ordenagailu pare bat, 'scanner'-a
eta inpresora. Kazetariak egindako testuak
ordenagailutik bertatik jaso eta diseinu
programa bat erabiliz nahi dugun forma
ematen diegu. Bestetik, argazkilarien
argazkiak 'scaner'-aren bidez ordena-
gailuan sartu eta prestaturiko diseinuan
kokatzen ditugu. Horixe da gutxi gora
behera gure eginbeharra.

Maketa, diseinua, erabat berritu duzue.
Egindako aldaketa guztien artean, zein
azpimarratuko zenuke?

Batez ere, askoz ere freskuagoa izango
dela. Aldizkariari hainbat urte kendu nahi
izan dizkiogu kolpetik, aurpegiko zimurdu-
rak leunduz. Produktu berria egin nahi izan



Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldia • Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin
- ERAMAN ETA JAN
- "kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran • GASTEIZ



dugu, Gasteizko euskaldunen eskaeraren arabera. Gasteizko euskaldunak gazteak dira, adinaz edota izpirituz, eta guk maketa gazte bat, freskoa eta ausarta aukeratu dugu beraientzat.

G.G.: Maketa berri horrek lan egiteko zenuen era aldatu al du?

A. P.: Bai, erabat gainera. Orain arteko maketa oso monotonoa zen; nik esango nuke nahiko astuna, aspergarria zela. Azken hilabeteotan nahiko inbertsio sendoa egin dugu informatika ekipoetan, eta horrek guztiak azkarrago lan egiten uzten digu. Azkarrago lan egitean askoz aukera gehiago ditugu gauza zailagoak egiteko, detaileetan aritzeko eta, azken finean, kalitatea hobetzeko.

Zein berritasun ekarriko dizkigu, beraz, G.G. Gasteizko diseinu berriak?

Helbururik garrantzitsuenak kalitate maila handitzea izango da. Badakigu oso zaila dela akatsik gabeko aldizkaria egitea, baina horretan ihardungo dugu. Batetik, aldizkariaren mamia hobetzea bada hel-

geu gasteiz

"Etap berri honetan, G.G. Gasteiz aldizkari garbiagoa sortu nahi dugu, deigarriagoa."

geu gasteiz



irakurle denak izan ditugu buruan maketa berria diseinatzerakoan

burua, kazetariak egindako ahalegina ezin dugu zapuz-

tu. Eta bestetik, irakurterraz izatea nahi dugu. Aldizkari garbiagoa sortu nahi dugu, deigarriagoa. Azken finean, irakurleak G.G. Gasteiz, aldizkari propiotzat har dezan nahi da etapa berri honetan, gurekin identifikatzea.

G.G.: Zapore pixka bat erantsi diozue, beraz?

A. P.: Hala da. Azaletik azken orrialdera arte aldizkari entretenigarria egin nahi dugu eta, maketatzaileok, testu eta irudiei salta apur bat erantsiko diegu, aldizkariak irakurlegoari on egin diezaion.

G.G.: Ezustekorik egongo al da?

A. P.: Bai, noski! Baina orain kontatuz gero, ez litzateke ezusteko izango. Aurreratu dezakeguna zera da: aldizkari atsegina egingo dugula, haseratik amaiera arte entretenigarri eta interesgarria izango dena.

HORRETAN EZ IZAN DUDARIK!

geu gasteiz

Maketa

diseinu berria irakurleari jarria

• **TITULARRAK:** letra moeta atsegina sartu dugu, gazteagoa eta pertsonalagoa, irakurlearekin harreman estuagoa lortu nahian.

• **ARGAZKIAK:** argazki-oinak, argazkilariaren izena, informazio zuzenagoa eta zabalago emateko.

• **MARRAZKIAK:** ohiko komikia egiten duen Migo Sarasolaren abenturez gain, Aitziber Iriondori beste txoko bat utzi diogu: bizitza umorez ikusteko oso bi era ezberdin.

ETA EZUSTEKO UGARI...



KONTUA DIRUA BADA ARGI ETA GARBI DAGO

Mendia Optikak, MultiOpticasek Gasteizen duen ordezkariak, bakar-bakarekin diezaizkizuke halako prezioak. 2.850 pezetaren truke baituzu Bonardi betaurreko pare bat. Kontua dirua bada, MultiOpticasekin argi eta garbi dago.



**LARUNBAT
ARRATSALDEZ
ZABALIK
5 - 8:30**



LORITZAZU
TRAVEL CLUBen
PUNTUAK
HEMENTZE



**ERAMAN
KUTXATILA KITORIK**

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza • Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

otsailaren 16an * igandea

arratsaldean,
geugasteiz-ek

15ean

antolatzen duen

B E R T S O

S A I O A

diferituan

emango du

CANAL GASTEIZ



TELEVISION

**2, 3 eta 5 orduko
ikastaroak**

**urrats guztiak:
EGA, MIntza eta
Sakontze**

**BENETAN: euskara
ordenagailuz**


Pintoreria, 74 Telf.: 28 97 80

Zaldiaran Plaza, 16 Telf.: 24 49 05

Errege Katolikoak, 15 - C behea

Telf.: 28 89 22 / 44

LAU HAIZEETARA



Egunon, Maddalena etxean al da?

arpidetza



X e.s.

GURE kolaboratzaileek kanpaina honen bitartez, irakurleak ezagutzeko aukera izan dute; jendearekin hitz egin, datuak eskatu, adina galdetu,... eta horrek guztiak, hartzaileen berri zehatzagoa izaten lagundu digu. Ez da ezusteko handirik egon, baina irakurleen batzuek besteko adin zehatza eta euskara maila ezagutzeak euren neurriko hilabetekaria egiteko balioko digu.

Harpidedunak biltze lanetan gertatutako bitxikeriek gure

bilerak animatzeko balio izan dute, gainera. Kolaboratzaileak harpidedun berriak egin nahian ate asko jo dituzte: etxe partikularrak, bulegoak, den-dak eta baita mojen komentu-ren bat ere. Leku batzutan ia harrika hartu dituzte "Ez dugu inolako aldizkaririk nahi" esanez, beste batzuetan, berriz, harpidetza txartela bete eta gainera, kafe bat hartzeko gonbitea luzatu diete etxekoek.

Sarrien aipatu den bitxikeria seme-alaba euskaldun eta guraso erdaldunak dauden etxeetan gertatu ohi dena da. Kolaboratzaileak etxe bateko

atea jo eta honako elkarrizketa izan du:

- Kaixo, Mikel al dago? - galdetu du GUE GASTEIZkoak.

- No majo, Mikel Aldago, no; Mikel Diez -erantzun atearen bestaldekoak.

LOTSA GALDU!

Orain arteko harpidedunek egindako kritikak kontutan hartuko dituela agindu du GUE GASTEIZek, baina irakurleek horren ordainetan etxera azaltzen direnei euskaraz egiten saiatu behar lukete gutxienez. Izan ere, aldizkaria irakurri eta harpidetza egin duen bat baino gehiago ez da euskaraz hitz egitera ausartu:

Arazo ekonomikoak GUE GASTEIZko hainbat kolaboratzaile atera ditu kalera. Lan hau, beharrezkoa bada ere, ez da oso lan atsegina, aldizkariak aurrera jarrai dezan 1.500 pezeta eskatzen baitabiltza etxez etxe.

"Irakurri bai, baina hitz egitea,... gaztelaraz, mesedez!"

Era berean, euskaraz mintzatzeko Ataunen jaio izan behar dela pentsatzen duen asko dagoela jakin dugu: "Hitz egin ezazu polikiago mesedez, euskal-dunberria naiz eta". Eta kolaboratzailearen erantzuna: "Baita neurenekin".

GUE GASTEIZeko kolaboratzaileek euskal prentsa irakurtzea hizkuntzarentzat oso osasungarria dela onartzen duten arren, iraunbitzeko hitzunak behar dituela gogoratzen dute. Beraz, lotsa galdu eta euskaraz hitz egiten hastea da GUEre eskaera. A! Eta harpidetza egitera anima zaitezte!

EL BAR Kutxi

eguneko

TXVSTA

TABERNA

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**

Mateo Moraza kalea

GASTEIZ

BAR KLAKÉ

KUTXA, 2

TFNO. 143883

GASTEIZ

Harpidetza Azkartasuna!

Iñigo Kastresana



X. edorta sanz

GEU GASTEIZeko lehenengo harpideduna izan zen iñigo. Eta ez zen izan bere etxea bisitatu zen aurrenekoa suertatu zelako. Harpidetza txartela bete ondoren, Iñigo bera apaiztegiko gure egoitzara etorri zen txartela eskura ematera.

Izan ere, gasteiztar honen iritziz harpidedunen bidezko finantzia-zioa aspalditik eginbeharreko kontua zen: "Lehenik eta behin kalitatea hobetuko delako, eta horretaz gain, etxe batzuetan aldizkari jaramon handiegirik egiten ez dioten bitartean beste askotan GEU GASTEIZ noiz jasotzen hasiko zain daudelako. Ordaindu behar izanez gero benetan interesa duenak baino ez du aldizkaria jasoko".

Horregatik, harpidetza kanpainaren berri izan bezain laster bete zuen Iñigok berea. Lehenengo harpidedun honentzat

GEU GASTEIZ bezalako egitasmo batek informazio eta komunikabide baten arloak gaintitzen ditu: "Niretzat aldizkaria beharrezkoa da Gasteizen bizi garen euskaldunok batzen gaituen tresna bakarra delako" Euskarazko komunikabideei dagokionez "Zazpigarren alabaren" topikoa benetakoa dela gogoratu du Kastresanak: "Araba da euskarazko irratirik ez daukan Euskal Herriko herrialde bakarra. Horregatik zaindu behar dugu daukagun aldizkaria".

Iñigo lehenengoa izan zen; zu ez zaitez azkenekoa izan!

Esperientzia!

Mari Karmen Mendizabal

"GUK HERRIKO euskaria dogu eta batzuetan gatxa egiten da aldizkaria irakurtzea baina komeni jakuna letzeko moldatzen gara" esan digu Bergara aldeko bizkaieraz mintzatuz Mari Karmenek. Aspaldidanik bizi da Gasteizen eta horren ondorioz "euskara nahastua" egiten duela dio "alabek batua ikasi dute eta".

Mari Karmen ere ez da kexatu GEU GASTEIZ etxean jasotzen jarraitzeko ordaindu egin beharko duela jakitean: "Egun ez dago ezer debalde, aizu".

Mari Karmen eta bere modukoek zabaldu zuten euskalgintzako bidea Gasteizen.



X. e.s.

GORETTI

ILEAPAINDEGIA

Korreria, 14 MIKEL DEUNAREN PASABIDEA
Tfno: 12 08 88
01001 - GASTEIZ



ARTEPAN

Artisau
Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

ELEKTRIZITATEA

muntaia elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna

GURIA

Matxaria, 2-7. pabilioia • Tfnoa: 943-70 08 95
Faxa: 943-10 85 47 20600 EIBAR

UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 34 33
GASTEIZ

Xabier

musika ona
eta giro
ezinhobeak **taberna**
Kutxileria 23

Ederki

argazki estudioa
ZURE ARGAZKIAK ORDU BETEAN
Erreportaiak: ezteiak, komunioak, bataioak
Estudioko argazkiak
Bideo industriala
Olagibel, 64 • Telefonoa: 27 50 85

Azkarra, Harpidetza gaztea eta esperien- tziaduna



X asier pz. de Karkamo

GEU GASTEIZko harpidedun gazteena da Arkaitz -hiru urte ditu-, aldizkaria bera mutikoa baino lehenago jaio zen. Filologoen belaunaldi berriaren ikerketagai izango omen den kolektibo bereziaren barruan dago Arkaitz: Guraso euskaldunberrien seme euskaldunzahar elebakarra da.

Raul eta Elena gurasoek Arkaitzen

izenean jarri dute harpidetza eta ikusteke dago haurra gurasoak bezain exigentea izango den. Dagoeneko, hilabetekarian iragarritako mami eta itxura aldaketen zain daudela adierazi dute Raul eta Elenak.

Harpidetza asko beharko dira oraindik Arkaitz GEU GASTEIZ irakurtzera iritsi dadin.



X a.p.

Leire Lpz. de Aberasturi



ZAHAR SENDO ZINDO

GASTEIZKO BATZOKIAK

ABENDANO ERDIALDE LAKUA ZARAMAGA

GASTEIZKO UDALA



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

SAILA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.
UDALETXEA	PRENTSA KABINETEA ZERBITZU OROKORRAK GIZARTEGINTZA (ARGIBIDEAK) GAZTEEN ARGIBIDE BULEGOA FUNTZIO PUBLIKOA IDAZKARITZA ARGIBIDEAK ETA ERREGISTROA ERROLDA	Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g	16 13 37 16 13 08 16 13 44 16 13 30 16 11 41 16 13 20 16 11 88 16 11 06
BULEGO TEKNIKOAK	BORONDATEZKO DIRU-BILKETA ZERGEN GESTIOA INGURUGIROA	Dato, 11 Dato, 11 Dato, 11	16 16 68 16 11 33 16 11 20
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA (DEMSAC)	KONTSUMITZAILEEN INFORMA- ZIORAKO UDAL BULEGOA (KIUB)		16 12 40
UDAL ARTXIBOA	ARTXIBOA-ARGIBIDEAK		16 14 99
ETXEBIZITZA ETA HIRI BERRIKUNTZARAKO UDAL ERAGINTEGIA	ARGIBIDEAK		16 12 88
VILLA SUSO JAUREGIA	ARGIBIDEAK		16 12 70
HEZKUNTZA SAILA (IME)	ARGIBIDEAK	Fray Zacarias	16 12 16
EKONOMI SUSTAPENA		Fray Zacarias	16 12 11 16 13 48
GIZARTE ETXEAK	JUDIMENDI LANDATXO IPARRALDE ARIZNABARRA	Urriak 12 kalea, z/g Santa Maria kalea, 4 Zuberoa plaza, z/g ARIZNABARRA, 19	16 17 40 16 16 82 16 17 60 13 36 91
EUROPA GIZARTE-ETXEA	ARGIBIDEAK (KULTURA) BILTZAR ETA TURISMO BULEGOA		16 12 31 16 12 61
KONTZIENTZI ERAGOZ- PENERAKO BULEGOA			16 36 91



Z E
E L
R E
B B
I I
T U
Z N
U A
K

haurrak elkartrukatu euskaraz bizi daitezen

HIRU urtero gertatu ohi bezala, GEU Elkarteak orain bederatzi urte Arantzabela Ikastolan sortutako ideari eutsiko dio aurtten berriro ere: Gasteizko B eta D ereduako 9, 10 eta 11 urteko gazteak Gipuzkoa eta Nafarroako herri txikietako beste gaztekin harremanetan jarriko dituzte. Helburua Gasteizko haurrei euskaraz bizitzeko aukera ematea da eta horren truke, Gipuzkoa eta Nafarroako haurrek udan Arabako hiriburua ezagutzeko aukera izango dute.

Aurtten, 70 haur inguruk hartuko du parte elkartrukaketa ekimen honetan, orain hiru urteko ekitaldian baino hogeita hamar partaide gutxiago. Antolaketa lanetan dabilen Xabier Galarragak ustez, "Ekimena dohainik dela eta igorritako informazio jarria 94an erabilitako bera izan dela kontuan hartuta, beherakada hau harremanei diegun beldurragatik gertatzen da".

Haur guztiak zazpi ikastetxetatik datoz (Ikasbidea, Arantzabela, Umandi, Barrutia, Lz. de Gereñu, Toki Eder eta Odon Apraiz), azken finean ikastetxea baita aldeztu aurretik elkartrukaketaren proiektuarekin bat egitea edo ez erabakitzen duena. Kanpaina berri bakoitzaren hasieran, ekimen honi buruzko informazioa euskal ereduak irakasten diren zentru publiko zein pribatu guztietara bidaltzen da, ikastetxe pribatuak inoiz izena eman ez badute ere. Eskolen baiezkoa lortu eta gero, 9, 10 eta 11 urteko haurrei eta beren gurasoei ekimenaren berri ematen zaie. Apuntatutako bakoitzaren gustuen arabera elkartruka-

ketarako lagun bat egokituko zaio eta bi familiak harremanetan jarriko dira bisitaldien datak zehaztu eta elkar ezagutzeko. Udako oporretan, Nafarroa edo Gipuzkoa aldera abiatuko dira haurrak, geroago Gasteizen beste hainbat egun elkarrekin igarotzeko.

Elkartrukaketa honen eraginkortasuna agerian dago: "Asko nabaritzen zaie euskaraz bizitzen emandako denbora. Bai gauza txikietan eta baita ere hitz egiteko erraztasunaren aldetik ere aurrerakada ikaragarria erakusten dute" azaldu digu Xabier Galarragak. Gainera, kasu gehienetan, hurrengo bi urteetan errepikatu egiten dute eta iraupen luzeko adiskidetasuna sortzen da.

Dagoeneko aurtengo kanpaina amaitu da Gasteizen eta Aste Santurako Gipuzkoa eta Nafarroako haurren datuak prest egongo dira bertakoekin partekatutako izateko hurbiltzen ari zaigun udarari begira.



Krossa: munduko kirolik merkeena

Euskarri Kirol Elkartearen itzalpean sortu da oraindik izen bila dagoen Kross Taldea. 17 eta 35 urte arteko hamabost bat lagunek osatzen dute ekipoa, emakume bakarria dago oraingoz.

Estreinua Gabon jaietan egin zuten Gasteizko Maratoi Erdian. Martin Fizek irabazitako lasterketa horretan, euskal kross taldeko lehen ordezkariak hogeigarren postua eskuratu zuen eta gainontzekoen denborak ere ez ziren txantxetakoak izan. Aldez aurretik antzematen den adiskidetasun giroari kirol maila ona gehitzen bazaio, eskaintza are eta erakargarriagoa bilakatzen da.

Kross taldea osatzeko ideia Euskarri Taldearen jaiotzarekin batera sortu zen. Hasieran, "futbola nagusi agertzen zen elkarte berriaren barruan eta nik futbola gustokoa ez dudanez, beste kirol honi ekitea bururatu zitzaidan.


Ko-rrika egitearena, gainera, dagoen kirolik merkeena da" azaldu digu e-kimenaren bultzatzailea izan den Raulek.

Edu Lpz. de Luzuriaga

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK

zurbeltz

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20



HegoAmerikako
jantziak ederrenak

PINTORERIA kalea • S. Franciscoren
kantoia ertzean Tfnoa: 25 03 52



Portal
del
Rey 9

GASTEIZ

«Abestera noazu kanta bat edo bi...»

GEU Elkartearen babesarekin euskal abesbatza bat sortzeaz dugu. Honek ez du esan nahi koroak euskal abestiak bakarrik kantatuko dituenik. Denbora gutxi barru sortuko den abesbatza honen asmoa mundu osoko kantak, doinuak eta erritmo berriak lantzea da, beti ere, euskara lan-hizkuntza bezala erabiliz. Ahotsen beharra

Ekimen honek oraindik argia ikusi ez badu, ahots gehiagoren beharrean daudelako da. Momentuz, hogeitaz bat lagunek eman dute izena bertan parte hartzeko, kopuru ideala hogeitamarrekoa litzateke, ordea. Horregatik,

idea gauzatu nahian aspaldidanik egon arren, Iñakik eta berarekin batera proiektu hau aurrera eraman nahi duen Kristina Jaenek dena puntu-puntu egon arte itxarotea erabaki dute: "Jende gehiago behar dugu lanean hasi ahal izateko. Koro serioa egin nahi dugu ekimena ez erretzeko" azpimarratu du Iñakik. Jarraian interesaturik daudenei deialdi bat egiten die lehenbailehen apunta daitezen: "Oso talde irekia izango da. Baldintza bakarra kantatzea gustokoa izatea eta euskaraz funtzionatzea da, baina ez da euskara maila konkretu bat eduki behar, lehen urratsetan ikasten dabilen edonork ere parte har dezake".

Baliteke Aste Santurako dena prest egotea eta abesbatza sortzea. Orduan, kantatzeari ekin baino lehen, ahotsak bereizten hasiko dira ondoren teknika bokala ikasteko eta, pixkanaka-pixkanaka, taldea osatzen joango da. "Taldea egitea oso garrantzitsua da, lagunak izatea; era honetan, 'enpastazio' ona lortzeko. Azken finean, koro batean inor ez da aparteko ezer, guztion artean atera beharreko zerbait da. Bakoitzaren ekarpen txiki baina garrantzitsuarekin funtzionatzen duen zerbait baita".

Harremanetan jartzeko telefono zenbakiak hauek dira: 18 76 51 (bulego orduetan) edo 22 93 29.

matrikulazio kanpaina D eta B ereduak indartzeko

HILABETE honetan GEU Elkartek urtero burutzen duen haurtzaindegietarako matrikulazio kanpainari ekingo dio eta ondoren, izena emateko epe ofiziala irekiko denean, DBH-rako kanpaina gauzatuko da.

Egungo egoera, orain hamar urtekoarekin alderatuz gero, oso ona dela esan daiteke. Klean euskaraz ikastearen aldeko presio soziala nabari da eta honen ondorioz B eta D ereduak gero eta ikasle gehiago dituzten bitartean. A ereduaren kontrakoa gertatzen da. Une honetan, hiru hezkuntz ereduak parekatutik daude ikasle kopuruan, baina euskarazkoek joera hazkorra erakusten duten bitartean, erdal ereduak desagertzen ari da "eta joera horri eustekotan ikastetxe pribatuetan besterik ez da izango A eredu" iragarri du kanpaina honen antolaketa lanetan diharduen Xabier Galaragak.


Edu Lpz. de Luzuriaga

Baikor izateko badira beste arrazoi batzuk ere. Besteak beste, azken urteotan B ereduaren zentru pribatuetan sendotzen ari dela, edota ikasketen lehen zikloa euskaraz egiten dutenen hiru laurdenak euskaraz jasotzen dutela beren hezkuntza.

Nolanahi ere, oraindik zailtasunak aurki daitezke A ereduaren zentruetan euskaraz matrikulatzearen aldeko kanpaina egiteko eta, azken finean, Gasteiz euskaldundu arte oraindik lan itzela gelditzen da.

matrikulazio Gasteizen

3 urteko haurrak



DBH

(derrigorrezko bigarren hezkuntza)
matrikulazio Gasteizen
1996. urtea

A eredu	%67,56
B eredu	%15,92
D eredu	%16,50

alex badillo



GYREA

jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefonoa: 24 59 33

Tu Invernadero zure lore sortak

ALDABE 6, BEHEA
tfnoa: 14 43 63 - 01001 GASTEIZ

EUSKARRI:

euskararekin sasoi betean

1996-97 ikasturtearen hasierarekin batera agertu zen Euskarri Kirol Elkartea. Gasteizko zelai eta kantxetan euskara zabaldu eta ondorioz Arabako zenbait federaziotako tramiteak euskaraz egiteko beharra ekarri zuen klub honen sorrerak. "Egun gaztelera nagusi den kirol-mundu horretan euskaldunon eragina sentiarazi nahi dugu" azaldu du arduradun lanetan aritzen den Joseba Gorostizak.

Ekimena abian jarri zenetik, euskarak bere tarteak aurkitu du futbol, saskibaloia eta areto-futboleko lehiaketa ofizialetan, baita aisialdirako eskaintzen diren beste kirol batzuetan ere.

AISIALDIA ETA KONPETIZIOA

Euskarri Kirol Elkartea bi sail nagusitan banatuta dago: bata konpetizio-kiroletan murgildutakoa eta bestea aisialdirako ekintzei zuzendutakoa. Konpetizio-kirolei dagokienez, iazko irailetik aurrera lau talde ari dira norgehiagoka ofizialetan:

- ☐ Gizonezkoen futbola (1. maila erregionala) -20 jokalaria-
- ☐ Emakumezkoen areto-futbola (Herrialdeko maila) -10 jokalaria-
- ☐ Emakumezkoen saskibaloia (1. maila Senior) -13 jokalaria-
- ☐ Gizonezkoen saskibaloia (3. maila Senior) -10 jokalaria-

Txapelketa senior hauetan parte hartzearekin batera, ekimenaren lehen urratsa eman da: Euskarri gizarteratzearena, hain zuzen ere. Hala ere, erronka nagusia gazteen mailetara zabaltzea da. Era honetan kirol amateurrean ari diren

adin guztietako gazteekin talde berriak sortzea lortu nahi da. Elkartea, horrez gain, ahalik eta kirol gehienetara hedatzen saiatuko da. Besteak beste, esku-pilota, igeriketa, atletismoa, eskubaloia, e.a.

Aisialdirako sailean, berriz, mendi eta kross taldeak izan ziren estraineakoak, baina badira beste ekintza batzuk prestatzeko planak ere: bizikletaz ibiltzeko taldea, adibidez, eta proposa daitekeen beste edozein kirol modalitate.

BAZKIDE KANPAINA

Euskarri Elkartek mila bazkide lortzeko asmoa dauka, era horretan kirol ekimen hau ekonomikoki zein sozialki duintasun osoz aurrera atera ahal izateko. Bazkide-tzak balio duen mila pezeta horien truke, kide bakoitzak elkartea

osatzen duten aisialdirako eta lehiaketarako taldeei buruzko informazioa jasoko du. Alde batetik, ikasturtearen hasieran egingo diren kirolei buruzko informazio osoa; bestetik, denboraldiaren amaieran urteak eskainitakoaren berri. Honekin batera, asterik aste emaitza eta egutegiaren gora-beherak buletin baten bitartez etxean eskuratuko dira.

Horretaz gainera, Euskarrik kultura arloko beste hainbat ekitaldi antolatu nahi ditu bere bazkideentzat. Besteak beste, kirolari buruzko hitzaldiak eta mahai-inguruak, entrenatzaileentzako ikastaroak, argazki erakusketak, euskara ikastaroak, kontzertuak, ipuin-lehiaketak, e.a. Are gehiago, Euskarrik, uda partean, Elkartearen Eguna ospatuko du urtero.



Edo Lpz. de Luzuriaga

OGZ
I
ETORRI
I

xurruT

KUTXI 103
GASTEIZ

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ

Arabarako euskal irratia martxan

IAZ iragarri bezala, GEU Elkartea-ren baitan euskal irradi bat Araban sortzeko lantalde bat sortu zen. Uhinak airera ateratzeko oraindik hainbat denbora falta bada ere, proiektuak aurrerapauso handia egin berri du Eusko Jaurlaritzak emandako milioi baten dirulaguntzari esker. Diru kopuru hau asko ez bada ere, behintzat ahalbidetu egin du esanetatik ekintzetara igarotze ahalbidetuko du.

Laguntzaren banaketa ondorengoa izan da: alde batetik, ia 700.000 peze-ta nahasketa-mahai bat erosteko (era honetan, material erosketa txiki batekin, laster asko emisio praktikak eta irradi-tailerrak egin ahal izango dira). Bestetik, gainontzeko 300.000 peze-tak, Arabarako euskal irradi honen egitasmoa gauzatzen ari diren libera-tuen soldatak ordaintzeko.



X edorta sanz

Gauzak horrela, irratia-ren sorrerara-ko oso garrantzitsutzat jotzen den lan taldea otsaileko hilabete honetan ber-tan osatu nahi da. Interesatuok jar zaitezte harremanetan GEU-Gasteiz aldizkariko erredakzioarekin eta bile-ra honen berri izan bezain pronto jakinaraziko zaizue. Bitartean, aurre-tik ere egindako eskakizuna errepika-tuko dugu: Arabarako euskal irratia-rentzat izenen bat bururatzan al zaizu?

Edu Lpz. de Luzuriaga

Mendi tontor gainean

HILABETE honetan bertan GEU Elkar-te-ko mendiko taldeak bi urte bete ditu. Jaio zene-tik hona hamazazpi irteera egin dira Euskal Herriko hainbat eremutara. Irtenaldi hauetan adin guztietako ehun bat lagun aritu dira guzti-ra. Hilabete batzuetan gailurren bat zanpatzea izan dute helburua eta beste batzuetan ibilaldi lauak aukeratu izan dituzte.

Taldeko nukleoa hamar mendizale inguruk osatzen dute. Aukeratutako irtenaldia, egural-dia edota azterketen arabera jendea gehiago edo gutxiago biltzen da. Irtenaldiaren berri Herrikoia eta Axular liburudendetan eta Bagare eta Txusta tabernetan ematen da. Gainera, parte hartzea dohainik da erabat.

Orain bi urte, hiruzpalau lagunek taldea sortu zutenetik egoera sendotu eta egonkortu egin da. Hala ere "taldea indartu egin behar da" esan digu ibilaldi guztietara joan den Maitek. "Fede-ratu egin beharko genuke, Gasteiz inguruan ibi-laldi neurtu bat antolatu eta beste euskal mendi taldeekin harremanak izatea ere ondo legoke. Baina horretarako lan piska bat egiteko gogo-a duen norbaiten beharra daukagu".

kide

APAINDURA

Cercas Bajas, 27
Tfnoa: 14 41 95
GASTEIZ

kide

Bilatu, konparatu eta... erosi

geu gasteiz
aseratik lagun

Kepa Mendia (MENDIA OPTIKA)

50. aldiz agertu da zuen iragarkia aldizkari honetan. Zein da horren arrazoia?

Euskal prentsari laguntza ematearren egiten dugu, Gasteizen euskeraz argitaratzen den prentsa lagundu nahi dugulako, alegia.

Noiz erabaki zenuten aldizkarian publizitatea jartzea?

Geu sortu aurretik ere egiten genituen iragarkiak euskeraz: egunkarietan, irratan... Geu aldizkaria sortzea oso idea polita iruditu zitzaigun, bazkide egin ginen, eta hasiera-hasieratik erabaki genuen



X e.s.

laguntza ematea.

Errentagarria al da euskeraz egindako publizitatea?

Nire ustez prentsan, irratan edota beste medioren batean euskeraz iragartzea ona da. Sinisten dut horretan eta publizitatea euskeraz eginez gero, gehiago saltzen dela uste dut. Batez ere, eta zoritzarrez, konpetentziarik ez dagoelako.



X edortza tanz

Hilero kalera ateratzeko dirua lortzea izan da sorreratik Geu Gasteiz aldizkariaren buruhausterik handienetarikoa. Lau urte eta erdi haketan irakurle askok zuen etxeko atea ireki diozue aldizkari honi eta, aldi beran, denda, taberna eta komertzio-etxe askok publizitatea gure orrialdeetan jarri beren konfidantza adierazi digute. Asko izan dira orri haketatik pasa diren iragarleak. Batzuek, gainera, hasiera-hasieratik hutsik egin gabe gurekin jarraitzen dute. Hemendik, bihotz bihotzez, eskerrik asko.

Xabier Aizpeolea (ZURE HARATEGIAK)

- Beharrezkoa al da zure ustez Geu Gasteiz aldizkaria?

- Bai, nik uste dut euskeraz egindako gauza guztiak onak direla. Geu Gasteiz aldizkaria Gasteizen euskera hutsean argitaratzen den aldizkari bakarra da eta ona da hone-lako aldizkari bat kaleratzea.

- Zergatik hasi zinen publizitatea jartzen aldizkarian?

Geu elkartekoak etorri zitzaizkidan eta beren asmoa azaldu zidaten. Gustatu egin zitzaidan ideia eta oraindik laguntza hori ematen jarraitzen dut.

- Bada euskaldunak zuen bezeroen artean?



X e.s.

Bai, jakina. Lagun ugari etortzen da honera eta baita euskaldunak ere. Batzuek, gainera, zuen aldizkariak irakurle direla esaten digute.



Hasieratik lagun

Patxi Giraldo (GIRALDO MAKAILUA)

Zer deritzozu Geu Gasteiz aldizkariari?



X e.s.

Ondo deritzot euskera bultzatzeko Gasteizen dugun bakarra delako.

Zerk bultzatu zintuen iragarkia jartzera?

Geu elkartekoak nirekin harremanetan jarri ziren eta iragarkia jartzera animatu ninduten. Nire ustez honelako ekimenek bultzada on handia ematen diote euskarari.



X e.s.

Iragarkia euskaraz jarrita, lagun euskaldun gehiago hurbiltzen al da zurerara?

Baditut bezero euskaldunak, hona etortzen dira eta euskeraz egiten digute.

Hori neurtzea oso zaila da.

Koldo (KIDE ALTZARIAK)

Lau urte eta erdi pasa dira Geu Gasteiz aldizkaria jaio zenetik. Hasieratik publizitatea jartzen duzu hemen. Zergaitik?

Euskararen alde ekimen on bat delako. Gasteizen honelakoa den aldizkari bakarra da.

Nola ezaqutu zenuen aldizkaria?

Beti ibili naiz euskal kutsuko mugimenduetan eta giro ho-



X e.s.

garki baten bidez, laguntza ematen diet.

Euskaldunentzako merkaturik badago Gasteizen?

Nire iritziz euskara Gasteizen oraindik ez da oso errentagarria, baina bezero euskaldun batzuk hurbiltzen dira.

Karlos Fdez. de Betoño



XIXILU

AMARIKA PLAZA 2
23 00 68 GASTEIZ

JATETXEA

IPARRA

taberna

Giro ezin hobea!

Florida, 80
Tfnoa: 26 77 81

GASTEIZ

BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73

TABERNA
IPARRA
JATETXEA

Arte Ederrei buruzko Sailik zabalena ezaqut ezazu

behar duzun guztia aurkituko duzu

pastelak	pintzelak	lientzoak
oleoak	ikatxakiloak	olioak
akuarela	kaballetreak	etabar

500 METRO KARRATU
PAPERGINTZA, INFORMATIKA
ETA OFIMATIKARI ESKEINIAK

%10a gutxiago

Arriaga

euskalgintza, s.l.

San Anton Plaza 7-8 / Telf.: 26 90 33 - Faxa: 26 22 12
Biltegia: Urtiasolo 2.2. Pabilioia 23 47 00 Fax: 23 49 14

TABERNA

Upabi

San Antonio, 39

Lerro havek

idatzi behar dituen
kazetari honi lau urteko
balantzea egiteko eskatu
zioten. Lau urte
zaharragoa nintzela
ohartzean, depresioak
jota, lau tontakeria
idazteko baino ez nintzen
gauza izan, ordea.
Niretzat, kezaren bat
edo gomendioen bat
baldin baduzue,
Gasteizko errotxeren
batean emango dizue nire
berri.



4 urte zaharragoak

ESKIA, Ernesto Valverde, Carlos Martinez, Everest 93-Arabako espedizioa, Pedro Añarbe, Juan Arregi, Francisco Javier Mauleon, Jon Untzaga, Javier Murgialdai, Pablo Laso, Antonio Miranda, Luminosos Regui, Konpa, Euskal Herriko Itzulia, Carlos Lasheras, K2 Euskal Espedizioa, Pako Galdos, Molinillo, Josean Kerejeta, Martin Fiz, Sabino Padilla,

Perasovic, "Tati", "Musti" Mujika, Joseba Agirre, Antonio Gorriaran, Juan Carlos Najera, Estibaliz Martinez, Lorena Guren-dez, Tania Lamarca, Almudena Cid, Mikel Barcena, ONCE areto-futbol taldea, Antonio Gaceo epailea, Gregorio Rojo, Alfonso Arriola, Ruben Beloki, Patxi Eugi, Anahi Arbaizar, LLanos anaiak, boloak, EUSKARRI...

Lau urte zaharragoak gara guztiok: kirolari aberatsak zein pobreak, kirol profesionala atsegin ez duzuenak zein Basko-niazale edo Alaveszale amorratuak zaretenak, kirolzaleak besterik ez direnak zein... Ez nuen esan nahi baina... neu ere zaharragoa naiz, arraioa!

Lau urte igaro dira, GEU GASTEIZek aldizkariko kirol orrialdetan idazteko

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



PINTORERIA, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ

intrale



MIKEL
DELIKA

**BEIRATE
ESTUDIOA**

Txikita kalea, 1
Tfno. 14 64 10
GASTEIZ

**JANTZI ETA
OPARIAK**




Kutxillera, 27
Tfnoa: 26 07 10
GASTEIZ

Ardatz

itzulpen eta
euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

J A T E T X E A



Kutxillera, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ

Kirolak

aukera eman zidanetik. Lau urte hauetan batetik bestera ibili gara: Hegoa erakundeak Manuel Iradier kalean duen egoitza kale gorriara, handik Koldo Mitxelena, eta Koldotik hona, Apaiztegira alegia. Hemendik hara eta handik honera ibili gara guztiak: publizitate arduradunak, argazkilariak, maketatzailak, kolaboratzaileak, kazetariak...eta beti ordenagailua eskutan hartu eta aurrera.

HAMAIIKA ERO

Hasieran utopia zirudiena egia bihurtu da. Euskara hutsez egindako 32 orrialdeko hilabete-kari bat milaka etxetara banatzea lortu dugu. Ez da makala izan apustua! Eta hori guztia zuei esker edo beharbada guri esker... Hobeto esanda, guztioi esker. Horrela guztiok lagun, ezta?

Euskaltzaleon artean ero ugari garelako esan ohi dut eta gero eta konbentzituagoa nago horretaz.

Adibide gisa, GEU GAS-TEIZ aldizkariako lagunak jarriko ditut. Gure artean denetik dugu, ez zaigu ezer falta. Pentsatzen jarrita, ordea, neskak ez ditugu soberan. Izan ere, hiru neska baino ez dira aldizkarian: Lorea, Leire eta Aitziber. Ez da erraza hori ulertzen, euskaltegietan eta kazetaritzan mutil baino neska gehiago daudela esan ohi baita. Beharbada, apaiztegiko mutilon errua izan- go da, batek daki.

Lehentxeago esan bezala, denetarik dugu hemen: "Heavy" itxura duen morroi bat; bizkaieraz egiten duen Alaveszale amorratu bat; gau-txori bat -Bai, Karlos, zeu zara- Alvez abizen arraroa duen euskaltzale bat; txakurrak gorrotatzen dituen txoriburu bat; mendizale handi bat -Gorbea zer den ez daki, baina-; platerik inoiz apurtu ez duen erreteriar bat; ilea gominaz gainezka daraman harropuz bat -astoa beti azkena-, eta abar. Zuek ez asper-tzearren, ez dut zerrenda luzatu-ko, baina lasai asko luza zite-keen.

Hiruga-
rren orrial-
de a n

gure izen eta abizen guztiak agertzen dira. Ber-tara jo-tzen ba-du zue, berehala zera antze-mango du-zue: gehie-nak ara-barrak gara. Nire iritziz, label horrek, arabar labelak alegia, ez du garrantzirik, baina bada-ezpada argi utzi nahi izan dut. Izan ere, aldizkariakoak ea gipuzkoarrak garen galdetzen didate Gasteizko erdaldun askok. Hemengo gehie-nak, ordea, VTV ("Vitorianicos de toda la vida") horietakoak ga-ra. Ez gara Ma-nuel Iradier e-dota Dato kalee-tan bizi, baina hemen irabazten dugunarekin laister etorriko da hori ere.

Bestalde, eta jakina denez, Gasteiz eta euskara dira gure ardatzak. Kazetariok garen aldetik, Gasteizko berriak zuen etxetara euskaraz eramatea dugu asmoa. Ez dakit lortu

dugun, baina saiatu garelako ez in-uka dai-te ke. Orain- goz eta zoritxa- rrez, gure ogibidea ez da aldizkaria, eta ai-

tortu behar dizuet eguneroko ogia lortu ondoren egiten dugu- la lan hau. Badakit kirol orrial- deotan ere akatsak egin ditugu- na. Batzuen ustez, adibidez, horrelako aldizkari batean Bas- konia edota Alaves bezalako taldeak ez lukete lekuri izan behar. Nire ustez, aldiz, bai, eta ho- rrexegatik agertu dira behin baino gehiagotan. Irakur- le askok eta askok aldizkari honexen bidez izan dute lehendabizikoz Alaves eta Basko- niaren berri euska- raz, ez baitugu de- nok Euskaldunon

Egunkaria eta Argia erosten, zoritxarrez. Bai, badakit bat- zuek erosten dituztela, eta txalotzekoak dira horiek, baina ez da gehienon kasua. Horregatik bakarrik balitz ere, GEU GAS-

geu gasteiz

"Euskara hutsez
egindako 32
orrialdeko aldiz-
kari bat milaka
etxetara eramatea
lortu dugu"

geu gasteiz



HEGOALDE

euskaltegia

ZURE EGOITZA BERRIA
Jose Lejarreta 9 behea
tfnoa 28 41 96
01003 GASTEIZ

matrikula
zaitez!

HOBETU EZAZU ZURE BIZITZA KALITATEA

HOBEEKI

ALTZARIAK ETA ATSEDENA

• koltxoak • somierrak •
kanapeak • ohe artikulatuak •
latex • futton • ipar edredoiak •
neurrian egindako armairuak •

Pio XII.a kalea, 7 behea
Tfnoa. 27 23 44

01004 VITORIA-GASTEIZ



IE-EKOIZLEAK

14 eta 60
urte
bitarteko

**AKTORE NAHIZ
AKTOREGAIK
IBEHAR DITUGU**

• deitu otsailaren 18an edo 19an,
goizeko 10etatik 12etara eta
arratsalde, 4etatik 7etara
Gasteizko 28-12-55 telefonora

**EUKARAZ ONGI HITZEGITEA
EZINBESTEKOA IZANGO DA**

TEIZ onuragarria izan dela uste dut.

ABERATSAK ETA POBREA

Kirol profesionala edo harrobiko kirolaren arteko eztabaia ez da gaur goizekoa; Baskonia edota Alaves enpresa hutsak direla, instituzioek gainerako kirolariei ematen ez dien dirua horiei ematen diela, komunikabideentzat futbola eta saskibaloiaz gain ezer ez dagoela eta horrelako beste zenbait kontu kalean egunero entzuten ditugu. Beti bezalaxe, egia osoa ez da soilik alde batean edo bestean bilatu behar.

Guztion ahaleginak dira beharrezkoak. Hurrek Baskonia edo Alavesekin egiten dute amets, eskolan edo ikastolan baloiarekin ari direnean. Nik, behintzat, hala egiten nuen. Eta gaurko hurrek amets bera dutela ikusten dut. Horretaz ohartzeko, Mendizorrotzara edota Araba Pabilioiara joatea baino ez duzue, hurrez gainezka egoten dira-eta.

Hala eta guztiz ere, egia da, kirol aberatsak eta pobreak daudela, horretan ez dago zalantzarik. Kirolari batzuek dirulaguntza izan beharrean, dirua jartzen dute kirola egiteko; beste batzuk, berriz, milioidu-

nak dira. Baina guk ez dugu hori konponduko. Orrialdeotan ahalik eta kirol gehien plazaratzen saiatu gara eta horixe izango dugu helburu datorren hila-betetik aurrera ere. Hala ere, aldaketak izango dira, baita kirol orrialdeotan ere. Orain arte egindako lana hortxe dago, ordea. Lau urte igaro dira eta lau urte horietan hamaika kirol kaleratu ditugu. Tarteetan, kirolari euskaldunak ere ezagutu ditugu. Zerrenda ederra egin daiteke guztien izenekin eta hilabetero luzatuz doa gainera. Hortaz, gero eta gehiago gara euskaldun eroak.

geu gasteiz

Kirolak

Aupa euskaldun eroak!

Ismael

Diaz de Mendibil



Floridako altxorra !

35

adaka 
madinabeitia

altzariak • apaindurak
Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59
GASTEIZ



Izen-deituren artean galduta


Honelako aldizkari bat ateratzeak ezinbesteko baldintzak galdegiten ditu: idazleen lana eta maketazioa funtsezkoak dira, esaterako. Badira, alabaina, aldizkaria etxeetara igortzeko derrigorrezko diren beste zeregin batzuk. Horietako batez, alegia, fitxak osatu eta etiketak ateratzeaz arduratu naiz hasieratik gaur artean. 1992ko uztaillean atera zen O. zenbakirako hemendik eta handik bildutako helbideak sartu genituen, benetakoa auzolanean. Ez dut gogoan zenbat ale banatu genituen (bidenabar, O. zenbakia da zenbateko tirada ez dakarren bakararra). Ondoko hilabeteetan, eta I. zenbakia abenduan argitaratu bitartean, helbide mordoa sartu nuen ordenarean, jende ugari idatzi baitzuen aldizkaria dohain jasotzeko nahia adieraziz. I. zenbakitik aurrera 5.000 aletan finkatu zen tirada. Hasierako garai hartan gehienak etxeetara bidaltzen baziren ere (eskuz lehenbizi eta postaz geroago), artean mordoska ziren zenbait ikastola, liburutegi eta tabernatara eramaten zirenak. Geroa, eta helbide gehiago sartzen joan garen heinean, posta-bidezko banaketa da nagusitu dena (nik etiketak atera, Araba enpresa banatzaileak etiketak ezarri aldizkarietara eta postara...).

Duela urte eta erdi tirada 6.000ra igo zen. Horietatik 5.000 inguru Gasteizko beste hainbat etxetara iristen dira, beste 500 inguru Euskal Herriko zein estatuko probintzietan banatzen dira eta 20 bat munduan zehar (Australia, Paris, Cabo Verde...). Azken 15 hilabeteetan iritsi zaizkigun harpidetza berriak ezin izan ditugu sartu, arazo ekonomikoak medio. Orain, harpidetza ko-bratu egingo dela eta, zenbaitek baja eman dute eta hasiera batean harpidedunen kopurua jaitsi egingo da. Baina berriak ere izango ditugu! Bukatzeko, barkamen eske natorkizue. Horrenbeste izen-deitura, kale-izen, zenbaki eta abarren artean akats ugari egingo nituen. Akats horiek zuzentzeko zuen laguntza behar dugu. Bestalde, Gasteizko kale-izendegia euskaratua dago jadanik eta, luze gabe, zuzenketa guztiak egitea gura genuke. Ez harritu, beraz, Cuchilleria-n bizi denak laster Aiztogile kalean jasotzen badu GEU-GASTEIZ.

Inaxio Lopez de Arana Zorionak denoi!!!

LAU URTE ETA ERDI igaro dira GEU Gasteiz aldizkariaren 0 alea kaleratu zenetik. Aldizkariaren egunez egunekoaren berri ez duenak ez daki inola ere zer-nolako komeriak eta estualdiak bizi izan dituzten erredakzio-taldeak eta aldizkariaren inguruan ibili den jendeak, hilabetero GEU aldizkaria kalean izateko. Hori ezin da susmatu ere egin, zezenak barreraren atzealdetik ikusiz gero. Bartzelonako olinpiaden ditxosozko urte hartan, Gasteizko euskaltzale-talde batek zezenari adarretatik heltzea erabaki zuen euskara hutsezko hilabetekari bat kaleratuz. Bagenekien erronka gogorra zela, eta, noski, behin baino gehiago senperrenak ikusiko genituela (hala izan da, gainera), baina esan dezakegu egindako lan ikaragarriak inondik ere merezi izan duela, aldizkaria oraindik bizirik dagoelako (eta urte askoan halaxe egotea espero dugu), eta kalitatearen aldetik ere, agerikoa denez, aurrerakada nabarmena gertatu delako aldizkariaren taxukeran. Gauza bakarra behar da gure aldizkariaren etorkizuna inolako lausorik gabe ikusteko: Arabako instituzioak GEU aldizkariaren lana behar bezala baloratzen hastea; hori gertatzen denean, aldizkariak arazo eta traba guztiei agur egingo die betiko. Arabako euskalgintza ezin da euskaltzaleen boluntarismoaren eskuetan utzi.

Gure hilabetekari honen hasierako egunei berriro lotuta, esan beharra dago aldizkari-taldeak zenbait hilabete zeramatzala bilerak egiten proiektua zehazteko. Gauzak horrela, 0 alea 1992ko abuztuan kaleratzea erabaki zen, eta I. alea oporren osterako uztea. Dena dela, abuztuko ale hura sortzeko bidea oso malkartsua gertatu zen: ordenadorerik ez, non bildurik ere ez, denbora gutxi eta esperientzia gutxiago; ez geneukan ezer ere, baina hori bai, gogoia eta kemena kristorenak. Hastapeneko urrats haietan, Gasteizko Irakasle Eskolari esker konpondu ahal izan genituen arazo haietako asko. (Atzera poliki-poliki begiraturaz gero, berehala ohartzen gara beti izan dugula talde, elkarte edo herri mugimenduren bat guri laguntza eskaintzeko prest, dela AEK, dela Hegoa elkarte, dela Koldo Mitxelena institutua, etab. Eskerrik asko guztiei.



Ikusten denez, neurri handi batean, besteren eskuzabaltasunari esker bizi izan da GEU Gasteiz aldizkaria.) Dena zen anabasa, dena zen komeria olinpiaden besperako egun haietan, eta gu, garaia ezin hobeto egokiturik, maratoian trebatzen hasiak ginen, esku artean genuen lana ez baitzen di-da hartu eta instantera paretik kentzekoa, ez horixe. Egunen batean, gauean ere lan egin behar izan genuen: batek testuak sortu, beste batek pikatu, beste batek aldizkaria diseinatu, beste batek iragarkiak antolatu... "Eta paraolimpikoen argazkiak non daude?", galdetzen zuen batek. "Ez dakit", erantzun besteak. "Oraindik jasotzeko daude. Norbaitek joan behar du haien bila", esaten zuen hirugarren batek. Presaka eta korrika ibilita ere, ohartu ginen ez genuela denborarik izango aldizkaria maketatzen. Ez bat eta ez bi, enpresa batera jo genuen GEU aldizkariaren maketa egin ziezaguten. Hango langileak erdaldun hutsak zirenez gero, hamaika hankasartze barregarri egin zituzten aurreneko saioan. Gero, zuzenketak egin genituen, eta ale hura lehenengoa zela kontuan izanda, txukun samar atera zen, nire ustez. Baina gero etorri zen sustoa, maketazio-enpresak eman zigun fakturak barre egiteko gogoa puska baterako kendu baitzigun. Halaxe joan ziren, bi hitzetan esanda, aurreneko ale horrekikoak. Egia izanik ere harrezkero egoera dezente aldatu dela GEU Gasteiz aldizkarian, begien bistakoa da, berebat, oraindik asko hobetzeko dagoela nola aldizkariaren barneko gaietan (diseinuan, edukietan eta abarretan) hala aldizkaria sortzen duen taldeko kideen lan-egoeran. Baina ur handi horiek momentuz alde batera utziko ditugu, eta inolako harrokeriarik gabe Gasteizko eta Arabako euskaltzale guztiok geure burua zorionduko dugu, oraingo hau GEU Gasteiz aldizkariaren 50. alea baita:

zorionak denoi!

IRVSTA
poteo eta pintxoak

TABERNA

ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

Mateo Moraza 19
Tfn: 23 19 33
GASTEIZ

Zertarako Geu Gasteiz

geu gasteiz
AUR
9

7 asier pz. de karkamo

Gasteizko gertaera, iharduera, ekintza eta abarren berri emateko; euskaraz irakurri eta entretenitzeko; euskara lagundu eta bultzatzeko... Zivrenik horien antzekoak lirateke kalean jendeak emango lituzkeen erantzunak. Eta, nire iritziz, orain arte behinik-behin, horretarako balio izan du eskuetan duzun hilabetekari honek. Ez da gutxi, alajaina!



Baina hori nahikoa ote da? Kalean dauden beste aldizkarien ondoan, gureak zerbait gehiago eskaini behar al du? Konformatu behar al dugu daukagunarekin?

Behar bada, galdera gutxiago egin eta erantzunak ematen saiatu beharko nuke lerro hauetan. Ez naiz hasiko, ordea, galdera horiek erantzuten: erantzun argirik ez daukadalako batetik; eta lekurik ez daukadalako bestetik. Baina, hala ere, nire burutapen batzuk botako ditut, ea zer deritzozuen.

Gasteizko euskaldunon berri emango digun aldizkaria nahi nuke lehendabizi. Euskaraz bizi ahal izateko ahalegin horretan, aldizkaria Gasteizko euskaldun sakabanatuak biltzeko eta ezagutzeko sarea izatea nahi nuke; eta horrekin batera, euskaraz bizi nahi dugun guztion erreferentzia bihurtzea. Horrelakoxea izatea nahi nuke aldizkari hau.

Hortaz, euskararen unibertsoaz hitzegiten hasiak garen garai honetan, Gasteizko gure unibertso txikian, hila-betekari honek euskaldunontzat itsasargiaren funtzioa bete beharko luke nire ustez. Hara hor, zertarako nahiko nukeen Geu Gasteiz.

Xabier Zabaleta



ARANBIZKARRA

**ZURE
AUTOESKOLA!**

Valladolid kalea, 16
01002

28 28 39
Gasteiz

BASERRITAR ERAKO ALTZARIAK
berreskuraturiko egurrez eginak

eta **OSAGARRIAK**

*artisan lanak
lorategi eta barrualdeko-proiektuak
egiten ditugu*

Trav. Norte, 16 -7. pabilioia
Tfno-faxa 12 05 84
01013 Gasteiz



ALTZARIAK




**PSIKOLOGIA ETA LOGOPEDIA
ZENTRUA**

- ✓ **HELDUEN ETA HAURREN
PSIKOLOGIA**
- ✓ **HIZKUNTZ ARAZOAK**
- ✓ **AHOTS ARAZOAK**
- ✓ **IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK**

Gasteiz Hiribidea 46 - 1. esk
☎ 220136 **GASTEIZ**

**EVSKAL OKELA
LASAGABASTER**
harategia eta urdaitegia

Portal del Rey, 24
Tfnoa: 25 56 90
GASTEIZ



Erradiografia

Lorea Zurimendi

Hilabete honetan aldizkari honen 50. alea kaleratu dugu eta hori ospatzeko txanpain piska bat edatea erabaki dugu. Era berean, gertakari hori aitzakiatzat hartuz, geure buruari buruzko hausnarketa bat egitea bururatu zaigu. Baina, behar bada, txanpain gehiegi edan dugulako edo, ideiak ez ditugu batere argi. Zer egin dugu ondo? Zer aldatu behar da aldizkari panposo honetan? Carmen Sevillaren kolaboraziorik behar al dugu? Edo gure maisua den Gustavo igelarena? Aldizkari anarkista independente bihurtu ala Tibet-era ihes egitea hobe genuke? Milaka galdera sortzen zaizkigu. Baina ez kezkatu. Aranzabela ikastolako mostrongo azkarren ikerketa sakon eta zorrotz baten ostean, geure aldizkariaren erradiografia egin dute.



Bi urtetik hona aldizkaria etxean jasotzen dut; polita da baina motzegia. Komiki gehiagorekin eta letra gutxiagorekin hobeto egongo litzateke. Barrutik bizitasun gehiago behar du, dagoen dagoenean nahiko sosoa iruditzen baitzait. Gai berriak lan-

t z e a
ondo egongo litzateke. Adibidez, natura, festak... baita Gasteiz hiria nola sortu zen ere azaltzea. Nire familian aldizkaria denok irakurtzen dugu. Txarrena zera da: hain motza denez, berehala bukatzen dela.

Garazi, 11 urte

Mikel, 11 urte

EDAN • JANTEGIA



ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

Karta betiko eta oraingo platerekin

Eguneroko Menua
Betiko kazuelatxoak

KLASEAK

matematika
fisika
kimika
biologia
geologia
euskara

irakaskuntza ertaina
eta unibertsitatea

☎ 26 03 54

zure euskal LIBURUDENDA

Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

2errikoia



izozkiak

Hobe litzateke aldizkaria luzeagoa eta koloretan balitz. Aldizkaria etxean jasotzea gustatuko litzaidake. Era berean, animalia edo ordenagailuei buruzko atalak agertzea nahiko nuke. Bertsoak, ordea, ez zaizkit gustatzen. Dena dela, jendeari gustatzen zaizkioenez, orain arte bezala aldizkarian agertzen jarraituko lukete.

Juan Pedro, 11 urte

Gustatuko litzaidake aldizkarian kirolen berri gehiago agertzea. Badakit kirola egon dagoela baina kirol gehiago agertzea nahi nuke. Hurrengo urteetan



Euskadiko Igeri Txapelketara joango naiz. Behar bada, argazki bat aterako didazue eta aldizkarian agertuko naiz egunen batean. Nire azken eskaera hau da: komiki gehiago jarri, asko gustatzen zaizkigu eta.

Ibai, 11 urte

Azalean kolore gehiago jarri behar duzue eta letra pixka bat haundiagoa egin. Hau ere koloreduna. Komiki eta kolore gehiago, ipuinak, txisteak... eta antzeko gauzak leku gehiago behar luketeke. Baita ere, pultserak egiten ez dakidanez, interesgarria litzateke nola egiten diren azaltzea.

Ohiane, 11 urte

Ikastolek dituzten gauza txarrak agertzeko sail bat egon behar luke Geu Gasteizen. Gomentagarria iruditzen zait u-meentzako gai gehiago egotea eta jende ospetsu gutxiago ateratzea ere; hauek edonon ikusten ditugu.

Ainhoa, 11 urte

Kirol gehiago jarriko nuke: futbola, igeriketa, pilota... baina umeena; ez da beti helduen kirolari buruz idatzi behar. Geu aldizkaria nire ustez oso ondo dago, gauza pilo bat dakarrelako eta era guztietako gaiei buruz. Halere, komiki gehiago jarri behar dira eta baita ume txikiek egindako marrazkiak ere, ondoan bakoitza nor den azalduz. Harpidedun izatearen aukera ume guztiei zabaldu beharko litzaeke.

Sheila, 11 urte

Hilabetekari hau lodiagoa izatea nahi nuke: gai berriak landu, bertso eta ikastolako argazki gehiago... Nire iritziz elkarriketen kopurua gutxitu beharko litzateke eta egutegi haundiagoak eskaini.

Alain, 11 urte

Aldizkaria handitu egin behar da kirol, bideojolas eta ordenagailuei buruzko gaiekin adibidez. Berriak telebistako teleberrietan bezala landu beharko lirateke, Gasteizen gertatutakoak argituz: istripuak, hilketak, e.a.

Erlantz, 11 urte

haurrak
argazki-
materiala!



ARKAITZ

GARCIA NABARRO

3 urte



ILARGI

BLASCO OTXOA

2 urte

ENES MIKELIZINEMARA



**ZATOZ
ZINEMARA!**

ZURE AURPEGITXOA (edota zure seme-alabarena) munduko zortzigarren miwesgarritasuna dela uste baduzu, 'foto-maton'-ean ateratako argazkiren bat soberan baduzu, zure irribarrean aldizkari batean argitaratuta ikusi nahi baduzu... bidali zure argazkirik onena.

JASOTAKO ARGAZKIEN ARTEAN ZINEMARA JOATEKO SARRERAK BANATUKO DITUGU

Geu Gasteiz
Pedro Asua 2-3. A
91. bulegoa

ditare

UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

azkarprint
Cercas Bajas, 4
Tel. 27 92 51

**ZURE INPRIMATEGIA
EUSKARAZ**

Kolorezko Fotokopiak
ere egiten ditugu

GASTEIZ

INPRIMATEGIA

1997ko otsaila

WILD LIFE[®]

BY RICHAR ALTXABURUOGH
BBC PRODUCTIONS


WE'LL START BY STUDYING
THE "GORRIONUS GO-
RRONUS"



TODAY
WE'RE GONNA STUDY
A VERY QUEER
ECOSYSTEM...



...THE EXTREME
LIFE CONDITIONS IN
THE FAMOUS FLORIDA
FOREST...



BRETLY
AGGRESSIVE,
AIN'T IT?



OH! HOW LUCKY! THERE
WE HAVE A RARE ENDEMIC
SPECIES "JUBILATUS
OCIOSSUS"



HE'S BEING ATTACKED
BY A PREDATOR KNOWN
AS "CANIS KA-
KATIS"



IT'S CAUGHT
ITS PREY



HAVE A LOOK! A
"TXEROKI ENDEMICUS"
PERFECTLY CAMOU-
FLAGED...



...TO HUNT!



...HE'S
FAILED...



FORTUNATELY HE'S
GOT HIS OWN
RESOURCES



NEXT WEEK'S
EPISODE WILL BE A
MONOGRAPH ON A
SPECIES THREATENED
BY EXTINCTION



BBC

PRODUCTIONS

© ALTXABURUOGH LTD
1997 LONDON U.K.

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA 13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA-URDAITEGIA
PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



Florida Azoka 2 eta 3 ☎ 13 24 48
Abastos Azoka ☎ 26 78 97
2 eta 3 GASTEIZ



JOSEBA
HARATEGIA
PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ



**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**



larrua
antea
bakeroak
pana
...
prakak
jertseak
txupak
kamisetak
alkandorak
eskirako jantziak
...



**2. eskuko arroparik hoberena eta merkeena
Amsterdamgo Plaza Gasteizen**

**ANDRE MARI ZURIAREN PLAZA, 3
TFNOA. 25 67 06 GASTEIZ**

geu gasteiz

BERTSOLARIAK GASTEIZKO PLAZARA

A n d o n i E g a ñ a
A . M . P e ñ a g a r i k a n o
J o n S a r a s u a
A s i e r O t a m e n d i
A i t o r M e n d i l u z e
I g o r E l o r t z a
e t a G a s t e i z k o
B e r t s o l a r i G a z t e a k

Gaijartzailea: JOXERRA GARZIA

PRINCIPAL ANTZOKIAN

Otsailaren 15ean, larunbata, iluntzeko 8etan

SARRERAK: Aurretik 600 pta (Bagaren, Herrikoia eta
Axular liburudendetan)

Egunean bertan 800 pta

A N I O L A I Z A I L L A :